

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 14. saioa

Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 14

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2019ko otsailaren 25/ 25 de febrero de 2019 Urgull aretoa 18:30 / A las 18:30 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	21:00 / A las 21:00 horas

GAI ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

- | | |
|---|---|
| 1. Aurreko aktaren onarpena (10 minutu) | 1. Aprobación del acta anterior (10 minutos) |
| 2. Lourdes Txiki (20 minutu) | 2. Lourdes Txiki (40 minutos) |
| 3. Autokontsumorako udal baratzeak:
Marrus 2.1 (20 minutu) | 3. Huertas públicas de autoconsumo. Marrus 2.1 (15 minutos) |
| 4. 2019ko plangintza (15 minutu) | 4. Planificación para el año 2019 (15 minutos) |
| 6. Norberak lekarkeena (10 minutu) | 5. Ruegos y Preguntas (10 minutos) |

BILERAN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

**KONTSEILUKO
LEHENDAKARITZA**
PRESIDENCIA DEL CONSEJO

Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria

Hirigintzako zinegotzi ordezkaria, gonbidatuta.

TALDE POLITIKOEN
ORDEZKARIAK
REPRESENTANTES GRUPOS
POLÍTICOS

IRABAZI
EH BILDU

m

KONTSEILUKO KIDEAK VOCALÉS DEL CONSEJO	<ol style="list-style-type: none">1. HARITZALDE2. EGUZKI3. EMAUS FUNDAZIOA4. ARANZADI5. KALAPIE6. COAVN7. SEO DONOSTIA
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	INGURUGELA-CEIDA
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Ingurumeneko Zuzendaria / Director de Medio Ambiente Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Emakumezkoak / Mujeres = 4 Gizonezkoak / Hombres = 8
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Ingurumeneko goi mailako lege teknikaria / Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente ingurumena@donostia.eus

A

Saioaren bilakaera:

Desarrollo de la sesión:

1. Aurreko aktaren onarpena

Eguzkiko arduradunak aurreko aktan zerbait gehitzeko eskaera egin du: hain zuzen ere, 3. puntuan (klima aldaketara egokitzea) aretotik joan zela, Lourdes Txikiren gaia landu ez izana protestatzeko. Aurreko aktan gehitu da, eta besterik gabe, onartu egin da.

Irabaziren ordezkariak Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren aurreko bileraren ondoren bidali zen azterlana ekarri du hizpidera; alegia, klima aldaketak Donostiako hondartzetan izan ditzakeen inpaktuak zenbatesteko egin dena. Adierazi du azalekoa iruditu zaiola, aurreikuspenetan ziurgabetasun handiegia dagoelako. Ingurumen Osasunaren Zerbitzuaren buruak azaldu dio Azti Zentro Teknologikoak egin duela azterlana, alor horretan erreferentzia direla, eta gaur-gaurkoz ez dagoela zehaztasun maila handiagoa lortzeko modurik.

2. Lourdes Txiki

Kontseiluko lehendakariak Hirigintzako zinegotziari eman dio hitza, gai honi buruzko azalpenak eman ditzan.

Lehenik eta behin, adierazi du kontu honetan Ekintza ikastolako haurren segurtasuna izan dela lehenengo gauza. Egikaritzeko eman zen agindua ezin da segurtasunaren alorretik atera; hau da, kanpoan uzten ditu zehapenak eta hegala lehengoratzearen gaia. Horrek ez du esan nahi azken hori bazter utziko denik, bidezkoa bada. Azkenik, agindua saileko teknikarien gomendioz sinatu zuela argudiatu du. Une honetan espedientea oraindik zabalik dagoela gaineratu du.

HARITZALDEko ordezkariak zinegotziaren dimisioa eskatu du. Adierazi du Hirigintzako

1. Aprobación del acta anterior.

El representante de Eguzki solicita que se añada en el acta anterior que en el punto 3º (adaptación al cambio climático) se ausentó de la sala para manifestar su protesta por no haberse tratado el tema de Lourdes Txiki. Se añade al acta anterior y sin más se aprueba la misma.

El representante de Irabazi comenta que el estudio de estimación de los impactos del cambio climático en las playas del municipio de San Sebastián, que se envió con posterioridad a la reunión anterior del CSMA, le parece frívolo porque hay demasiada incertidumbre en las previsiones. La Jefa de Servicio de Salud Ambiental le informa que el trabajo ha desarrollado por el Centro Tecnológico Azti que son referentes en la materia y que el estado del arte no permite llegar a una concreción mayor.

2. Lourdes Txiki

La Presidenta del Consejo cede la palabra al Concejal de Urbanismo para dar las explicaciones de este punto.

En primer lugar indica que la seguridad de los niños y niñas de la ikastola Ekintza ha sido lo primero en este asunto. La orden de ejecución que se dio no puede ir más allá del ámbito de la seguridad, es decir, deja fuera las sanciones y el tema de la reposición de la ladera a su estado originario. Ello no quiere decir que se vaya a dejar de lado esto último, si así procede. Por último, defiende que firmó la orden recomendado por los técnicos/as del departamento. Comenta que en este momento el expediente está todavía abierto.

El representante de HARITZALDE solicita la dimisión del Concejal, dice que la

Departamentua dela gertatutakoaren erantzule. Gogoratu du Aldundiak geldiarazi zituela lanak, titularrak ez zuelako lizentziarik, eta gaineratu du ez dutela jaso Udalak ezarritako ezein zehapenen berri. Haren ustez, zinegotziak argudiatutako segurtasun kontuak aitzakiak dira. Esan duenez, ez du ulertzen zertan oinarritu ziren 50 m-ko ingurabidea ezartzeko eta, gainera, zenbait gunetan 100 m-ra zeuden zuhaitzak ere kendu ziren. Gertatutakoa larria dela iruditzen zaio; izan ere, HAPON babestutako balio handiko baso bat moztu zen. Leku hori lehengoratu behar dela deritzo. Aurkeztutako lehengoratze proiektuari dagokionez, gaia nola dagoen jakin nahi du, proposatutako espezie batzuk aloktonoak eta inbaditzaileak baitziren.

Haritzaldeko ordezkariaren ildo beretik, EGUZKI elkarteak adierazi du egiaz segurtasun kontua izan balitz itxiko zatekeela eskolako jolastokirako sarbidea, eta ez zatekeela mozketarik egingo haurrak jolastokian jolasean ibili bitartean. Haren ustez, bistakoa da axolagabekeriak jokatu zela, eta utzitako orbana edo soilgunea Londres hoteletik ikusten dela nabarmendu du. Azkenik, zehapenik egon den galdetu du, eta zinegotziak erantzun dio ez duela gogoratzen zenbateko zehatza. Eguzkiko ordezkariak zehapena zenbatekoa den eta nor zehatu den jakinarazteko eskatu du.

SEO-DONOSTIAko ordezkariak esan du irregulartasun bat izan zela Ekintza Ikastolari hedapena egiteko lizentzia ematea. ARANZADIK ere adierazi du erruaren zati handi bat ikastolari dagokiola, lur gehiago hartu nahi zituelako barnean. Horrez gain, galdetu du ea suhiltzaileei deirik egin al zitzairen presa hori justifikatzeko, eta, kasu horretan, auzitegira burofaxa bidali behar zutela esan du, gaia premiazkoa zela jakinarazteko eta haiek jarduteko.

Hirigintzako zinegotziak bere agintaldian babes mailari eusteko konpromisoa agertu du. Haren ustez, behin betiko konponbidea eman behar zaio: publiko bihurtu beharko litzateke, eta naturaz gozatzeko eremu bat izan dadila, Lourdes Txikiko zatiaren osagarri.

3. Autokontsumorako udal baratzeak. Marrus 2.1

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren

responsabilidad de lo acaecido radica en el Departamento de Urbanismo. Recuerda que fue la Diputación la que detuvo los trabajos por no poseer el titular licencia, indica asimismo que no tienen conocimiento de ninguna sanción por parte del Ayuntamiento. Considera que la seguridad que defiende el Concejal es una excusa. Menciona que no entiende en qué se basa el cinturón de 50m que se estableció y que, además, en algunos puntos se llegaron a eliminar árboles que estaban a 100m. Entiende que es de gravedad lo sucedido ya que se taló un bosque de gran valor que estaba protegido por el PGOU. Entiende que hay que recuperar este enclave. En cuanto al proyecto de restauración que presentaron, quiere saber como está el tema ya que parte de las especies propuestas era especies alóctonas e invasora.

El representante de EGUZKI se manifiesta en la misma línea que el de Haritzalde, dice que si de verdad hubiese sido un tema de seguridad se hubiese cerrado el acceso al patio escolar y no se hubiera procedido a la tala, estando los niños y niñas jugando en el patio. Cree que existe una manifiesta dejadez, y subraya que la mancha o calva dejada se aprecia hasta desde el hotel Londres. Finalmente pregunta por la existencia de la sanción, a lo que le concejal responde que no sabe acuerda del importe exacto. En representante de Eguzki solicita que se les informe sobre la cuantía de la sanción y a quién se le ha sancionado.

El representante de SEO-DONOSTIA dice que se cometió una irregularidad al dar la licencia de ampliación a la Ikastola Ekintza. ARANZADI también dice que mucha culpa la tiene la Ikastola al querer abarcar más terrenos y pregunta si había habido llamadas a bomberos que justificaran esta urgencia y que en este caso se debería haber enviado un burofax al juzgado para trasladarles la urgencia del tema y que actuaran.

El Concejal de Urbanismo se compromete a que en su mandato se mantenga el nivel de protección. Cree que habría que darle una solución definitiva, habría que publicarlo y que fuese espacio de disfrute de la naturaleza de complemento a la parte de Lourdes Txiki.

3. Huertas públicas de auto-consumo. Marrus 2.1

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y

Zerbitzuaren buruak gaia aurkeztu du.

ARANZADIko ordezkariak adierazi du baratze horiek inpaktu handia dutela ingurumenean, hormigoi mordo dagoelako eta bide artifizialak eta ur andelak egiten direlako. Hobe deritzo eremu horiek berroneratzen edo sega belardi gisa uzten badira.

Ingurumeneko zuzendariaren ustez, hiri bilbean hobeto txertatuta eta kokaleku honetatik gertuago dagoen toki bat litzateke baratzeetarako egokiena, baina toki hori aurkitu arte, honela egungo baratze eskariari erantzuten zaio eta baratze klandestinoen kopurua murrizten da.

EGUZKIko ordezkaria baratzeen kokalekua deszentralizatzearen eta baratze klandestinoen kopurua murriztearen alde agertu da.

EH BILDUK udalerrian nekazaritza jarduera sustatzeko baratze esperentziei buruz galdetu du, baita autokontsumoko baratzeen ekimenekin koordinatuta dauden ere. Ingurumen Osasunaren Zerbitzuaren buruak erantzun dio badagoela jarduera ekonomikorako baratzeen esperentzia bat, Sustapenak Sasuategi inguruan martxan jarri duena, eta haiekin koordinatuta lan egiten dela.

4. 2019rako plangintza

Ingurumen zuzendariak puntua aurkeztu du. Haren ustez, legegintzaldi berriari begira, lankidetzaren handiagoa eta liskar gutxiago egon beharko liriteke Kontseiluko kideen arteko dinamikan, "izan ere, gehiago da batzen gaituena, banantzen gaituena baino".

EMAUSEko ordezkaria zuzendariarekin ados dago. Gaineratu du gazteen falta sumatzen duela Kontseiluan.

IRABAZIko ordezkariak lidergo politiko handiagoa eskatu du: politikariek eman behar dute aurpegia.

HARITZALDEko ordezkariari eredia aldatu behar dela iruditzen zaio, nahiz eta dena gaizki ez egon.

EGUZKIko ordezkariaren iritziz, egiaz ez dute politikariek agintzen, beste botere talde batzuek baizik.

SEO-DONOSTIAko ordezkariak adierazi du hainbat puntuko proposamen bat aurkeztuko

Sostenibilidad presenta este punto.

El representante de ARANZADI dice que estas huertas suponen impacto medioambiental grande por la existencia de un montón de hormigón y la creación de senderos artificiales y depósitos de agua. En su opinión sería mejor que se dejaran para que se renaturalizaran como prados de siega.

El Director de Medio Ambiente cree que la ubicación ideal de las huertas sería en sitios más integrados en la trama urbana y menos alejados que este emplazamiento, pero a la espera de encontrar dicha ubicación se responde a la demanda de huertas existente y se reduce el número de las clandestinas.

El representante de EGUZKI está a favor de la descentralización en la ubicación de las huertas y a que se reduzcan las clandestinas.

El concejal de EH BILDU pregunta por experiencias de huertas para fomentar la actividad agrícola del municipio y si estas están coordinadas con las iniciativas de huertas de autoconsumo. La Jefa de Servicio de Salud Ambiental le informa que hay una experiencia de huertas como actividad económica que está impulsando Fomento en la zona de Sasuategui y que se trabaja de forma coordinada con ellos.

4. Planificación para el año 2019.

El Director de Medio Ambiente presenta el punto. Cree que de cara a la nueva legislatura la dinámica entre los componentes del Consejo debiera ser más colaborativa y de menos confrontación, "ya que lo que nos une es mayor que lo que nos divide".

La representante de EMAUS está de acuerdo con el Director y añade que echa en falta la presencia de jóvenes en el Consejo

El representante de IRABAZI solicita un mayor liderazgo político, son los políticos/as los que deben dar la cara.

El representante de HARITZALDE ve necesario un cambio de modelo aunque no todo está mal.

El representante de EGUZKI cree que los que mandan no son los políticos/as sino otros grupos de poderes.

El representante de SEO-DONOSTIA indica que presentarán una propuesta de varios puntos

dutela hegaztien babesari buruz, era berean gogorarazten die bokalei Artzain Onaren katedralean egiten ari den obrak arazoak sortzen ari dela belatz handiarengan. Kontuan izan beharko litzukete hegaztiak halako obretan.

5. Norberak lekarkeena

ARANZADIko ordezkariaren ustez, Artikutzako urtegia eraitsi eta guztiz kendu beharko litzateke. Ez da nahikoa tunela edo eskotadura irekitzea.

Zuzendariak esan du, alde batetik, arazoa izan daitekeela obraren ondorioz sortuko litzatekeen hondakin tona piloa ateratzea, eta aipatu du jende askoren iritziz urtegi horrek balio arkitektonikoa duela.

BILDUKo zinegotziaren aburuz, Ingurumeneko Departamentuak hiriko zuhaitzen kudeaketan parte hartu beharko luke. Zuhaitziak Kudeatzeko Plan Gidaria aurkez dadila eta ekarpenak egiteko aukera eman dadila eskatu du.

EGUZKIKo ordezkariak herrian egiten diren lasterketetan milaka botila lurrera botatzen direla salatu du, eta ez direla birziklatzen edo ez dela horien berrerabilera justifikatzen. Era berean, adierazi du lasterketak geldiarazteko prest daudela hori ekiditeko neurriak hartzen ez badira.

Aranzadik udalerriko hondartzetan, terrazetan eta markesinetan erretzea debeka dadila eskatu du. Orobat eskatu du ez dadila handitu udalerrian egiten diren su festen kopurua; izan ere, hondakinak hondartzara, Urumea ibaira, etab. iristen dira. Kalapie-ko ordezkariak azaldu du zenbait herrialdetan (Alemania, Txina) debekatuta dagoela suak jaurtitzea.

Saioa 21:00etan amaitu da.

sobre la protección de las aves, asimismo recuerda a los presentes el problema que ha supuesto para el halcón peregrino las obras de reforma de la Catedral del Buen Pastor. Se debieran tener en cuenta las aves en este tipo de obras.

5. Ruegos y Preguntas

El representante de ARANZADI cree que la presa de Artikutza debiera demolerse y retirarla del todo. No basta con abrir esa un tunel o una escotadura.

El Director le responde que por un lado está el problema de sacar tanta tonelada de escombros, y menciona que para mucha gente existe un valor arquitectónico en dicha presa.

El Concejal de BILDU cree que el departamento de Medio Ambiente tendría que participar en la gestión del arbolado de la ciudad. Solicita que se presente el Plan Director de Gestión de Arbolado y que se puedan hacer aportaciones.

El representante de EGUZKI denuncia que en las diversas carreras que acoge la ciudad se tiran miles de botellas al suelo que no se reciclan o no se justifica su reutilización. Asimismo, avisa que están dispuestos a parar dichas carreras si no se toman medidas para evitarlo.

Aranzadi solicita que se prohíba fumar en las playas, terrazas y marquesinas del municipio. También solicitan que no se incremente el número de fuegos artificiales del municipio ya que los residuos llegan a la playa, al río Urumea etc. El representante de Kalapie indica que en algunos países está prohibido lanzar fuegos artificiales (Alemania, China).

Finaliza la sesión a las 21:00 horas